

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 543/2019 Foru Dekretua, abenduaren 30koa. Onartzea irabazteko xedetik gabeko elkarte eta erakundeei, garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako urteko ekintza puntualak finantzatzeko xedez, dirulaguntzak lehiaketa bidez emateko 2020ko deialdia

Arabako Foru Aldundiaren lankidetzeta eta elkartasun politika publikoaren agiriaren helburua da jardun esparru garbi bat ezartzea, 2030 Agenda Berria eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan (Nazio Batuen Batzar Orokorra onartu zituen) ezarritako oraingo nazioarteko erronka eta esparruei egokitua, esparru horri erantsi behar zaizkiolarik lankidetzako foru politika partaidetu, elkar banatu eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak:

“Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Lankidetzeta Politiken Esparru Dokumentua, ESKUTIK, 2016/2019” - urriaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 629/2016 Erabakiaren bidez onartua, eta azaroaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 718/2016 Erabakiaren bidez aldatua.

Hurrengo urratsa ESKUTIK MUNDURARI ekitea izan da, lankidetzeta politika publiko desberdina (berritua, berritzailea, eguneratuta...) eraikitzeo erronkari erantzuten dion prozesu parte hartzaile gisa, elkarrekin lankidetzan jarduteko lan gune bat tinkotuz.

Era honetan, foru lankidetzeta nazioartean arautzen duen programa esparrua bi hauek eratzen dute: Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren 2030 Agenda berriak eta Garapen Jasangarriaren Helburuek. Bi horiek 2015eko irailean onartu ziren pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan gisa, eta plan horrek datozen urteetan abiarazi beharreko erabakiak eta ekintzak gidatuko ditu.

Aintzat hartuko da, halaber, Klima Aldakeetaren gaineko Nazio Baten Esparru Hitzarmena, Parisko Gailurrean mundu osorako onartutako erabakia, gizakiek beren berotegi efektuko isuriek eragindako berotzea eragozteko bidea irekitzen duena.

Era berean, Foru lankidetzeta gidatzen duen arau esparrua otsailaren 22ko 1/2007 Euskal Legea, garapenerako lankidetzarena, da. Hauexek ezartzen ditu lege honek: euskal lankidetzari identitate ongi definitua, oinarri daukana epe luzeko garapen prozesuei laguntzeko planteamendu batetik abiatuta egiturazko pobrezia eta desberdintasunak erazteko oinarritutako eredu bat, ematen dioten printzipio arautzaileak, helburuak eta lehentasunak.

II. Mundu Gerraz geroztik beren herrialdeetatik alde egin behar izan duten pertsonen kopurua inoizko handiena den honetan eta krisi erraldoiak (Siria, Yemen, Irak, Hego Sudan,...) batera gertatzen ari diren honetan, hil ala bizikoa da buru-belarri jardutea txirotasunaren eta segurtasuna eta bizimodu eta lan duinaren bila milaka eta milaka pertsona beren herrialdeetatik alde egitera behartzen duten gatazken aurka.

Marko honetan, lankidetzeta politikak diseinatzean, Arabako Foru Aldundiak doktrina esparruari buruz hausnartuko du, bai eta tartean diren eragile, tresna eta elkartei eta ikuspegi oso batetik haren gizarteratzeari buruz ere.

Nazio Batuen Gailurrak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (GIA) Berria onartzeko taxuturiko azken agirian onartzen da txirotasuna errotik kentzea dela munduak daukan erronkarik handiena, eta horretarako beharrezkoa izango dela herrialde guztien, alderdi interesdun guztien eta pertsona guztien lankidetzeta itun baten bidez ezarriko den plan bat, non gobernuak, gizarte zibilak, sektore pribatuak, Nazio Batuen sistemak eta beste eragile batzuek parte hartuko duten eta eskuragarri dauden baliabide guztiak eskura jarriko diren.

Joan den 2017ko abenduan, Nazio Batuen idazkari nagusiak zera adierazi zuen "Nazio Batuen garapenerako sistemaren jarrera berria, 2030 Agenda betetzearren: gure duintasun, oparotasun eta bake agintzaria planeta osasuntsu baterako" izeneko txostenean (A/72/684-E/2018/7): "2030 Agendak garapenaren ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiak integratzen ditu. Giza eskubideetan dago oinarrituta, eta agerian jartzen du erakundeak eta gobernamentua indartzeko beharraren axola handia. Agintzaria eginik inor ez baztertzeko, bereziki nabarmentzen ditu emakumeak eta neskatok, gazteak, desgaitasunen bat duten pertsonak, herri indigenak eta beste talde kaltebera batzuk, oraindik ere beren ahalmena higitzen diena txirotasunak eta bazterketak. Mundu osorako da, eta aitortzen du herrialde bakoitza dela bere garapenaren ardura-dun nagusia. Era beran, dei egiten du lehenago inoiz ez bezalako neurriko ekintza kolektiborako."

Agenda 2030 inplementatzeko ardura bai administrazioek bai gizarte zibileko beste erakunde batzuek daukate; horregatik, hura behar bezala inplementatzeko, inoiz baino egokiagoa da gaitzea deialdi bat ahalbidetuko duena lankidetzak ekintzak gauzatzea, baldin eta ekintza horiek, beren ezaugarriengatik, ez badute lekurik urte anitzeko proiektuetan eta/edo beste gizarte eragile batzuentzat sarbide badira.

Jarduera horiek gizartearen eta Arabako Foru Aldundiaren konpromisoaren lekuko dira, nola tokian-tokian hala oro har herrien giza garapen iraunkorra sustatzeko; batez ere, txirotasuna errotik desagerrarazteko, giza eskubideak betearazteko, justizian, berdintasunean eta ez diskriminatzean oinarritutako nazioarteko harremanak bultzatzeko.

Deialdi honetan jasotzen diren proiektuak oinarritu behar diren baldintzak, besteak beste, hauek dira: berdintasuna eta bereizkeriarik eza, eta zeharkako moduan, emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasunaren printzipioa eranstea, nazioz gaindiko erakundeek emandako zuzentarauei jarraituz, baita ere estatuaren araudiari (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa) eta autonomia erkidegoko araudiari (otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana, eta Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana).

Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Planak (2016-2020) programa esparru bat eskaintzen du Arabako Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko; beraz, gobernuak epe horretan arloan duen konpromisoa erakusten du.

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren 2019ko abenduaren 4eko proposamena ikusi da.

Horregatik, eta diputatu nagusi gisa dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea irabazteko xederik gabeko elkarteei, garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako urteko ekintza puntualak finantzatzeko xedez, dirulaguntzak lehiaketa bidez emateko 2020ko deialdia.

Bigarrena. Deialdi hori ondoko hauek arautzen dute: Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzaren lehiaketa bidezko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (30/2012 Foru Dekretua, maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena, ALHAOren 62. zenbakian, 2012ko maiatzaren 30ekoan, argitaratua), baita ere Foru Dekretu honen eranskinean xedatutakoa eta, halakorik ezean, urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza, eta aplikatzekoak diren lege osagarri eta garapen legeak.

Hirugarrena. Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontu proiektuaren 02.5.01 93.00 4.8.1.00.02 "Ekintza puntualen deialdia" eta 02.5.01 93.00 7.8.1.00.02 "Ekintza puntualen deialdia. Deialdi berria" partidetatik (55.000 eta 35.000 euroko kreditua izatea kalkulatzeko da) ordainduko dira. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebazten den unean. Honela banatuko da:

Gastu arrunta: 55.000,00 euro.

Inbertsio gastua: 35.000,00 euro.

Hasiera batean kontsignatutako zenbatekoak aldatu egin ahal izango dira, handitu edo txikitu, gastu arruntaren eta inbertsioaren arteko banaketari erantzuna emateko azmoz, indarrean dagoen ekonomia eta aurrekontu araubideko arauetan ezarritakoari jarraituz, deialdi honi ezarritako guztizko muga mantenduz.

Zenbateko hori, gehienez ere, deialdi horretarako izendatutako dirulaguntzen urteko zenbatekoaren ehuneko 10 gehitu ahal izango da; dirulaguntzak irabazteko xederik gabeko elkarreentzat dira, lehiak esleitzekoak dira, eta garatzeko bidean diren herrialdeetan lankidetzako urteroko ekintzak puntualak diruztatzeko dira.

Laugarrena. Organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsitatz jo ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendariari ahalmena ematea foru dekretu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko ezinbesteko diren egintzak eta xedapenak emateko.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena. Laguntza eman ala ukatzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutako moduetakoren batean. Hori izango da jakinarazteko bidea sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetzatzatuzeko 2020. urtean dirulaguntzak eskatu dituzten erakundeei.

Zortzigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

NEREA MELGOSA VEGA

ERANSKINA**GARAPENERAKO LANKIDETZAKO URTEKO EKINTZA
PUNTUALAK GAUZATZEKO LAGUNTZAK****1. artikulua. Dirulaguntzaren emakidaren xedea, baldintzak eta helburua**

Artikulu honen xedea da ezartzea garapen bidean dauden herrialdeetan burutu beharreko garapenerako lankidetzako eta irabazteko asmorik gabeko erakundeek sustatutako urteko ekintza puntualak finantzatzeko laguntzei aplikatu beharreko berariazko araudia.

Garapenerako lankidetzako ekintza puntualtzat jotzen dira beren ezaugarriengatik edo txikiak izateagatik urte anitzeko proiektuetan lekurik ez daukaten eta/edo beste gizarte eragile batzuentzat sarbide diren ekintzak.

Emandako dirulaguntzaren helburua erakunde eskatzaileak proposatutako eta administrazioak onartutako ekintza zehatzak finantzatzea izango da, betiere horiek deialdi honetan zehaztutako gaikako arloetan sartzen badira.

Erakunde eskatzaileak proposatutako ekintza, zehatz horiek diruz lagundu ahal izateko, funtsen xede diren gastuak diruz laguntzeko modukoak izan beharko dira, deialdi honetan ezarritako baldintzetan.

Diruz lagundutako jarduera erakunde eskatzaileak bere eskabidean planteatutako baldintzetan egin beharko da. Aldaketarik egotekotan, aldaketa horiek administrazioak onartu eta sartu beharko ditu emakida prozesuan edo burutzapenaldian, eta ezin izango dute emakidaren helburua aldatu.

Ondorio guztietarako, dirulaguntzaren edo laguntzaren erakunde onuraduna izango da dirulaguntza gauzatzen duena eta dirulaguntza eman duen organoari justifikatu beharrekoa behar bezala justifikatzen duena, nahiz eta tokiko bazkideek edo atzerriko aurkako alderdiek gauzatu izan guztiz edo partez.

Ez da azpi kontratutzat joko tokiko bazkideek edo atzerriko aurkako alderdiek guztiz edo zati batean gauzatzea dirulaguntza, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak, 27. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. Behar bezala identifikatu beharko dira tokiko bazkideak edo aurkako alderdiak, proiektuan edo jardun proposamenean.

2. artikulua. Dirulaguntzak emateko erregimena

Dirulaguntzak norgehiagoka erregimenaren bidez emango dira, eta hautaketa deialdi eta prozedura bakarra egongo da.

3. artikulua. Erakunde edota elkarte onuradunak eta bazter utzitakoak

Deialdi honen bidez ahalbidetu egin nahi dira beren ezaugarriengatik urte anitzeko proiektuetan lekurik ez daukaten ekintzak, eta era berean, gaitu egiten da lankidetzarako sarbide bat beste gizarte eragile batzuentzat.

Hona hemen dirulaguntza eska dezaketen erakundeak: dirulaguntzaren erakunde onuradun izateko debekurik izan ez eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez banatzen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek (maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 30/2012 Foru Dekretuak onartutakoak) xedatutakoak eta deialdi honen diruz lagun daitekeen lerrorako eskatzen diren berariazko betekizunak betetzen dituztenak.

Dirulaguntza hauek erakundeen elkarrekin ere jaso ahal izango dituzte, baldin eta elkarte hori osatzen duten partaide guzti-guztiekin betetzen badituzte laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintza orokorrak eta berariazkoak. Erakunde horiek proiektuaren erantzukizun bateratua bereganatuko dute; gainera, egoitza bakarra aukeratuko dute espedientearen administrazio jakinarazpenetarako. Elkartzeko izan dituzten arrazoiak azaldu beharko dituzte.

Erakunde bakoitzak proiektuan duen partaidetza ehunekoak, baita bakoitzaren eskubideek eta betebeharrak ere, hitzarmenez ezarrita egon beharko dute, eta hitzarmen hori erakundeek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute. Hitzarmen horretan erakunde bakoitzak bere partaidetza ehunekoari dagokion erantzukizun zuzena hartuko du, eta erantzukizun subsidiarioa, berriz, proiektuaren osotasunari dagokionez.

Ondoko hauek ezin dute jaso deialdi honetako laguntzarik:

a. Aurreko ekitaldietan jasotako dirulaguntzekin egindako gastuak ezarritako epealdietan eta behar bezala justifikatu ez dituzten elkarteek eta erakundeek, zuzendaritzaren aburuz proiektu edo jarduera horiek ez justifikatu izanaren arrazoiak behar bezala justifikatuta badaude izan ezik.

b. Estatuaren menpeko erakundeek eta zerbitzuek, erkidegoko administrazioak, toki erakundeek, aurrezki erakundeek eta enpresek.

c. Zuzenean nahiz talde bati lotutako edo talde bereko erakundeen bitartez Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzat hitzarmena duten irabazteko xederik gabeko elkarteak eta entitateak, baldin eta hitzarmen horren helburua deialdi honen xedeari lotutako jarduerak edo programak egitea bada.

Erakunde onuradunen betebeharrak:

Hona hemen dirulaguntzen erakunde onuradunen betebeharrak:

a. Proiektua eta dirulaguntza ematea ahalbidetu duen jarduera egitea.

b. Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean egiaztatzea baldintzak betetzen dituela, eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin duela edo helburua bete duela.

c. Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

d. Aplikagarri zaion merkataritzako edota zergei buruzko legediaren arabera, erakunde onuradunak eraman beharreko kontabilitate eta erregistro liburuetan jasota uztea hartutako laguntza eta horren erabilera.

e. Jasotako dirulaguntzen erabilerari buruzko egiaztagirak gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan daitezkeen heinean.

f. Justifikazioa dela eta xedatutako betebeharrak betetzea.

g. Aplikatu beharreko araudian ezarritako kasuetan jasotako dirua itzultzea.

h. Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea dirulaguntza ematean kontuan hartutako egoeren aldaketa oro.

i. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarritik.

4. artikulua. Dirulaguntza eskatzeko betekizunak eta betekizun horiek nola egiaztatu

a. Administrazio erregistro egokian formalki erregistratuta egotea gutxienez deialdi hau argitaratu baino urtebete lehenagotik.

b. Nortasun juridikoa edukitzea eta irabazteko asmorik ez.

c. Sozietatearen egoitza edo egitura finko eta iraunkorra Arabako Lurralde Historikoan edukitzea (horrexek bereganatuko du eskaera aurkezteak dakarren erantzukizun zuzena) eta proiektuen dokumentazioa Arabako bulegoan edukitzeko konpromisoa hartzea.

d. Erakunde onuradunak egunean egon behar dira zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak emandako idazkeran) xedatutakoari jarrituz hori frogatu beharretik salbuetsita egon ezean, bai laguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

5. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak

Orokorrean, garapen bidean dauden herrialdeetako talde edo alde behar tsuenen beharrak asetzeko ekintzek jaso dezakete dirulaguntza. Herrialde horiek ELGAko Garapenerako Laguntza Batzordeak eginiko Laguntza Hartzailen Zerrendan daudenak izango dira.

Deialdi honetarako hauek izango dira, hain zuzen ere, diruz lagundu daitezkeen ekintzak: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan esandakoa eta/edo Nazio Batuen garapen jasangarriaren helburuetako bat edo batzuk lortzen laguntzen duten jarduera eremukoak; bai eta emakumeen egoera hobetzeko helburua dutenak, emakumeei gizarte, ekonomia, kultura, zibil, politiko, sexu eta ugaltze eskubideak areagotzen laguntzen dietenak ere.

Ondorengo hauek ez dira diruz lagunduko:

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako 16. Artikulua arabera, aurrekari, testuinguru eta justifikazio ataletan genero ikuspegia sartzen ez duten proiektuak. Horien barruan jaso behar dira emakumeen eta gizonen premia eta egoera espezifiko azterketa bereizia eta proiektuak berdintasunean aurrera egiteari egingo dion ekarpena.

Erakunde pribatu baten ondare balioa areagotzen duten azpiegiturak eraiki eta egokitzea barne hartzen duten ekintzak.

Proiektuaren kalitate teknikoarekin zerikusia duten irizpideen blokea balioestean, gutxienez, puntuen erdiak lortzen ez dituzten ekintzak.

Aurrekontua partidaka, jardueraka eta finantzatzaileka xehakatuta ez daukaten ekintzak edo behintzat proiektuaren formularioaren (II. eranskina) 6.1. eta 6.3. ataletan agertzen diren partiden arabera gastuen taula eta diru sarreren taula zehaztasunez betetzen ez duten aurrekontua daukaten eta/edo irizpide horretan 0 puntu daukaten proiektuak.

6. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta muga

Deialdi honetan, diruz lagundu daitezkeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Arabako Foru Aldundiko Beerdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitezkeen guztirako aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko 80 finantzatuko du gehienez ere, eta erakunde eskatzaileak gainerako ehuneko 20a jarriko duela bermatu behar du.

Erakunde eskatzaileak honela egin ahal izango du bere ekarpena: ekarpen balioetsien bidez, funts propioen bidez, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen funtsen bidez, eta/edo jarduerak sortutako diru sarreren bidez, edo diruz lagundu daitezkeen gastu gisa adierazita dagoen partidaren batean ekarpen ekonomikoak eginez.

Balorizazio horiek bakarrik diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira norberaren ekarpena justifikatzean; ezin izango zaizkio egotzi Arabako Foru Aldundiari, ezta elkarrekin finantzatzen duten beste erakunde publiko edo pribatuei ere.

Bakoitzak bere ekarpena balorizazioen bidez eginez gero jasotako edozein partidatan, erakundeak hori jaso egin behar du proiektuaren formularioko aurrekontu tauletan (II. eranskina), baita behar bezala beteta aurkeztu ere erantzukizunpeko adierazpen erdua, balorizatu-tako gastu ekarpenen aurreikuspenarekin (eranskin berean dago sartuta).

Ematen den dirulaguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango eskatutakoa baino gehiago, ez eta diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 80 baino gehiago ere, eta erakunde bakoitzari gehienez 10.000,00 euro eman ahal izango zaizkio. Erakunde bakoitzak proiektu bat bakarrik aurkeztu ahal izango du dirulaguntzarako, berdin dio eskaera banaka ala taldean egiten duen.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, erakundeko 1.500,00 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua doitu behar bada, doikuntza hori egin ahal izateko beste dirulaguntzen edota baliabide publiko zein pribatuen bidez proiektuaren kostua elkarrekin finantzatzea eskatu duen erakundeak jakinarazi beharko dizkio horiei buruzko ebazpenak Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari. Jakinarazpen horrekin batera bidali behar ditu dirulaguntza eman edo ukatu izana egiaztatzen duten agiriak.

Arabako Foru Aldundiak edo beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk edo bestelako diru sarrerak jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa baino gehiago.

7. artikulua. Proiektuen betekizunak

a. Oinarri hauen bidez diruz lagundutako ekintza guztietan, erakunde batek laguntza jasoko duen herrialdean lan egin beharko du. Tokiko bazkide horrek nortasun juridiko propioa izango du, eta ez du irabazteko asmorik izango. Taldetan antolatutako tokiko bazkideak ere aurkeztu ahal izango dira, betiere erakunde guztiek ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b. Proiektutik etorritako ondasun higigarri eta higiezin guztiak biztanleria onuradunen edo haiek ordezkatzeko dituzten erakundeen eskuetara pasac. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera kontatu ahal da proiektuaren hasiera data.

Dirulaguntza ordaindu denetik gehienez ere bi hilabeteren barruan hasi beharko da proiektua, eta betiere 2020ko abenduaren 7a baino lehen.

Zernahi baleko arrazoi dela eta, epe hori igaro eta proiektua hasi ez bada, baimena eskatuko zaio, idatziz, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuari. Hala ere, baimen horrek ez ditu inoiz gauzatzeko eta zuzitze epeak luzatuko; hortaz, horrelakoetan, proiektua gauzatzeko epea laburtu egingo da.

Erakunde onuraduna behartuta dago proiektuaren hasiera eguna Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuari jakinaraztera, diruz lagundutako proiektuari jarraipen egokia egin dakion.

Edonola ere, proiektua amaitzeko epea ez da 2020ko abenduaren 7a baino beranduagokoa izango.

d. Foru Dekretu honetan araututako jarduera diruz lagunduak egiteko epea, gehienez ere, bi hilabete arte luzatu ahal izango da alde aurreko baimenik gabe. Horretarako, ezinbestekoa izango da Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuari gauzatzeko epea bete baino lehen berriaz jakinaraztea. Epe luzeagoetarako, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren alde aurreko baimena beharko da. Baimen hori eskatu egin beharko da. Eskaera horretan, onartutako proiektuan zehaztutako epeak betetzeko ezintasuna arrazoituko da.

e. Ez da deialdiaren aurreko urteetako gasturik diruz lagunduko, proiektuak identifikatuzetik eratorritako gastuak izan ezik, eta, betiere, hurrengo atalean ezartzen diren baldintzetan.

f. Elkarrekin Araban duen ordezkariaren konpromisoa lortzea, garatu beharreko ekintzen jarraipena egiteko. Horretarako, beharrezkoa izango da elkarrekin arduradunak sinatutako dokumentu bat aurkeztea, non Arabako ordezkarietatik jarraipena egingo den.

8. artikulua. Lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta behar-beharrezkoak direnak eta proiektua gauzatzeko epean egiten dena.

a. Diruz lagundu ahal izango dira, besteak beste, zuzeneko kostuak, baldin eta aurreikusitako jarduerarekin zerikusi zuzena badute.

– Lurren edota eraikinen erosketa.

– Eraikinen eta azpiegituren erosketa, eraikuntza edo birgaikuntza. Lan hauekin era puntualean lotutako eskulana, eta behar diren eraikuntzako edo zaharberritzeko materialak eta azterlan teknikoak.

– Ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea.

– Proiektua gauzatzeko laguntzen duten pertsonen jaten emateko elikagaiek sortutako gastuak (biderakoak).

– Tokiko langileen kostuak.

– Atzerrian ari diren langileen kostuak; muga: diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 10, edota hilean 2.500,00 euro gordin pertsonako.

– Prestakuntza gastuak. Tokiko giza baliabideetan prestatzeko beharrezko diren materialek, langileak kontratatzeak edo erakundeko bertako langileek eragindako gastuak, beharrezkoak direnean proiektu bat abiarazteko, baldin eta proiektuan parte hartzen badute edo prestakuntza programa baten muin badira.

– Proiektuarekin lotutako pertsonen bidaiak, lan harreman baten bidez edo borondatez, egonaldiak eta dietak.

– Proiektuarekin zerikusia izan eta ALHn sentsibilizazio jardueren ondorio diren gastuak. Jarduera horietan eta joan-etorrietako gastuetarako, kilometro bakoitzeko 0,29 euroko muga ezarri da.

– Funtzionamendurako ekipo, material eta suntsigarrien gastuak: proiektuaren funtzionamenduak toki erakundeari sortzen dizkion gastuak, dagokion herrialdean proiektua garatzeko beharrezkoak diren ondasun higigarri eta higiezinaren alokairuetarako, eta ekipo, material eta suntsigarriak erosteko, baita egitasmoaren barruan planifikatutako sentsibilizazio ekintzek sortutako gastuak ere.

– Txandakako funts bat hornitzea mikrokredituak emateko. Kasu horretan, erantsi funts hori kudeatzeko araudia. Hori da xede diren biztanleei zuzenean edo gauzaz ematen zaizkien maileguen diru zenbatekoak, aurrez finkatutako baldintza batzuetan itzuli behar dituztenak.

– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

– Ebaluazio gastuak. Proiektuaren ebaluazioa egiteko proiektuaz kanpoko kontratazio baten ondoriozko kostuak, dela ebaluazioa kanpoko besterik gabe, dela mistoa (erakunde eskatzaile baten, toki erakundearen edo dena delako herriaren parte hartzearekin).

Proiektu baten barruan Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren iritziz deialdiaren xedea behar bezainbat aldeztu ez duen jarduketarik egonez gero, dirulaguntzaren kalkulutik baztertu daiteke.

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratzea baimendu ahalko da, dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero. Entitate onurduak loturiko pertsona edo entitateekin egitea hitzartu ahalko du, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza arrunten arabera egitea.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea, (II. eranskinean jasotako eskaera ereduaren arabera).

Erakunde eskatzaileak bere ekarpena egin dezake, balorizazioen bidez, ondoren zerrendatzen diren kasuetakoren batean, kontuan hartuta haietan zein muga ezartzen den, halakorik ezartzen bada:

– Lurren erosketa partidan. Jabetza edo haiek erabiltzeko eskubidea balioetsi ahal izango da, bai eta lursailak landuko dituzten nekazari eta abeltzainen lana ere. Era berean, bai eta proiektuari zuzenean atxikitako eraikinak ere edo haien banaketa proportzionala, proiektuari atxikitako zati bat baino ez bada. Egindako ekarpenaren balorazioa aurkeztuko da, behar bezala egiaztatuta, proiektuaren kokapenari dagozkionetarako.

– Eraikinen erosketa, eraikuntza edo birgaikuntza partidan, zeregin horietara lotutako langile ez kualifikatuak balioetsi ahal izango dira. Egindako ekarpenaren balioespina aurkeztuko da, proiektuaren kokapenaren inguruabarrak direla-eta behar bezala egiaztatuta.

– Ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea partidan, espero diren emaitzak lortzeari zuzen atxikitakoak balioetsi ahal izango dira, dagoeneko abian diren ekipoak eta materialak izan ezik. Egindako ekarpenaren balioespina aurkeztuko da, proiektuaren kokapenaren inguruabarrak direla-eta behar bezala egiaztatuta.

– Proiektuari aldi baterako atxikitako langileak balioetsi ahal izango dira prestakuntza partidan. Egindako ekarpenaren balioespina aurkeztuko da, proiektuaren kokapenaren inguruabarrak direla-eta behar bezala egiaztatuta.

– Langile boluntario balorizazioari dagokionez, diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa orduko 20,00 eurokoa izango da.

– Tokiko langileen partidarekin zerikusia duten kostuak.

– Atzerriratutako langileen partidarekin zerikusia duten kostuak.

– Bidaia, egonaldi eta ordainsari partidarekin zerikusia duten kostuak.

– Sentsibilizazio gastuen partida dela eta. Sentsibilizazio jarduerak eragindako gastuak, bai proiektua garatzen den herrialdean egindakoak, bai proiektuarekin zerikusia izan eta ALHn egindakoak.

b. Halaber, gehienez ere, kostu zuzenen ehuneko 10ak jaso ahal izango du dirulaguntza ezer justifikatu beharrik gabe, gastu orokorrak edo zeharkako gastuak badira. Ez da onartuko balioetsitako gastuen zenbatekoa. Zeharkako gastuen barruan sartuko dira diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena ez duten elektrizitate, berogailu, ur, telefono, alokairu eta zerbitzu orokorren gastuak, egitura kostuei dagozkienak, eta abar. Kontzeptu horretan sartuko dira, halaber, proiektuaren identifikazio, formulazio, jarraipen eta auditoriarekin zerikusia duten gastuak eta dirulaguntza jaso duen erakundearen koordinazioaz edota administrazioaz arduratu diren langileen gastuak.

9. artikulua. Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko epea honako hau izango da: hogeita hamar egutegi-egun Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideen jasotzailea Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza izango da. Eskabideen ereduak deialdi honen I eta II. eranskinetan jasoko dira, baita Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus) ere.

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>), edo, bestela, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, aldundiaren beste erregistro batzuetan eta itundutako udalen erregistro orokorretan aurrez aurre. Eskaera horiek Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, eskatzaileek ziurtagiri elektronikoa izan behar dute aldez aurretik. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate egiaztatzaile bategen jaulkitako egiaztargiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo atal honetara: Ezagutu egoitza-Nola sartu.

Arabako Foru Aldundiaren webgunean <https://web.araba.eus/es/ayudas-igualdad-cooperacion-e-interculturalidad> eskuragarri dagoen informazioan, eskaera ongi aurkezteko jarraitu beharreko argibideak zehazten dira.

10. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideen ereduak deialdi honen I eta II. eranskinetan jasoko dira, baita Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus) ere.

Eskabidea ondoren adierazten diren agiriekin batera baino ez da aurkeztuko. Beste agiririk behar izanez gero, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak eskatuko du.

a. Eredu ofizialaren arabeko I. eranskina, erakundearen legezko ordezkariak duen pertsonak sinatua.

b. Erakundeak kasuan kasuko administrazio erregistroan izena emanda duela frogatzen duen agiria.

c. Proiektuaren inprimakia, Arabako Foru Aldundiak emana (II. eranskina). Aurrekontuaren azalpenean, eurotan eskatutako dirulaguntza kalkulatzeko erabilitako kanbio tasa adierazi behar da.

d. Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia eta erakunde edo elkarte eskatzailearen ordezkariaren ari dela frogatzen duen agiria.

e. Erakunde eskatzailearen IFKren fotokopia.

f. Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen eskatu bada, haien egiaztargiak aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz.

g. Proformako fakturak aurkeztuz gero, zenbakituta aurkeztuko dira taula batean. Taula horrek faktura bakoitzaren zenbatekoa eta denen batura jasoko ditu, eurotan.

h. Erakundeak indarrean dituen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

i. Antolamenduaren lehendakariak sinatutako agiria, ziurtatzen duena entitate eskatzaileak gizarte egoitza edo egitura finko edo egonkorra baduela Arabako Lurralde Historikoan, eta konpromisoa erakusten duena jarraipena ordezkariak horretatik egiteko.

j. Elkarte edo erakunde eskatzailearen zuzendaritza batzordearen osaketaren aktaren fotokopia.

k. Egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikotik kanpo duten erakundeek dagokien Zerga Ogasunarekin dituzten zerga betebeharrak bete dituztela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.

l. Erakunde eskatzailearen organigrama.

m. Langile atzerriratuei dagokienez, erakunde eskatzaileak ondoko hauek bidali behar ditu: langile horiek hara bidaltzeko dagoen beharrari buruzko justifikazio memoria, eskatutako gaitasun profesionalerako irizpideak, egingo dituzten lanen iraupena eta azalpena eta kontzeptu horregatik egotzitako gastuak

n. Dirulaguntza erakunde elkarte batek eskatzen badu, Hirugarren artikuluan jasotako agiriak eta hitzarmena.

ñ. Erakunde eskatzaileari eta tokiko bazkideari proiektuak dakartzkien eskubideak eta bete-beharrak azaltzen dituen agiria, bertan jasorik, baita, proiektuak ekarritako ondasun higigarri eta higiezin guztiak biztanleria onuradunaren edo hura ordezkatzeko duten erakunde publikoen eskuetara pasatuko direla.

o. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (hemendik aurrera: BEZ) ordaintzetik salbuetsita daudela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute, dagokien zerga administrazioak emana eta BEZan hainbanaketa erregelatu daudenean, behin betiko portzentajearen froga-agiria.

p. Hala badagokio, entitateak proiektuari egiteko ekarpen balorizatuaren aurreikuspenaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena. Langile boluntarioen balorizazioan, aipatutako langileen balorizazio aurreikuspenaren azalpen idazkia (ekintza bakoitzean egindako bolondres lan-ordu kopurua eta beren kostua adieraziz).

q. Hala badagokio, erakundeak Araban dituen boluntarioen aseguruak ordaindu izanaren egiaztagiriak.

r. Entitate eskatzailearen azken bi urteetako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua,

s. Hala badagokio, lankidetzaren arloko arabar agente ezohikoekiko lankidetzaren ekimenak nola garatu diren egiaztatzen duten dokumentuak.

t. Hala badagokio azpikontrataziorako baimen eskaera (II. eranskineko ereduaren arabera).

u. Egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero, erakunde eskatzaileak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragai dagoen inprimakian eskatzen den informazioa bete behar du.

2. Aurkeztutako eskabidea egoki ebaluatu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak agiri eta informazio gehiago eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

3. Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 53. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta eskatutako agiriak jada Arabako Foru Aldundiak badauzka, esan behar da non eta noiz aurkeztu ziren.

Agiriren bat lortzeko modurik ez badago, organo eskudunak eskatzaileari errekerimendua egin ahal izango dio hura aurkez dezan, edo, bestela, agiri horretan egiaztatutako baldintzak beste bide batzuetatik froga ditzan, ebazpen proposamena egin aurretik.

4. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du erakunde eskatzaileak baimena ematea organo kudeatzaileak zuzenean eskuratu ahal izateko 4. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Arabako Foru Ogasunarekiko egoerei (barne dago, hala badagokio, BEZaren salbuespena eta BEZ zergan hainbanaketa erregelako ehuneko) eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute kasuan kasuko ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

11. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskumenduna

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Balorazio batzorde horren lehendakaria Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria izango da edo hark eskuordetzen duena. Batzorde horretako kide izango dira: Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren burua den pertsona, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari atxikitako garapenerako lankidetzako bi teknikari; Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzako teknikari bat,

idazkaria izango da, eta ahotsa bai, baina botorik ez du izango. Batzorde horretako kide batek gutxienez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ezagupenak edota haren aplikazio praktikoko esperientzia izango ditu.

12. artikulua. Ebazteko epea eta aurka egiteko bideak

1. Organo Eskumendunaren proposamena entzun ondoren, eskumena duen organoak emango du ebazpena. Horretarako, sei hilabete izango ditu eskabideak ALHAOn deialdia argitaratu denetik.

Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko du erakunde interesdunak.

2. Dirulaguntzak emateko ebazpenean oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla aipatuko da arrazoienez azalpenean; gainera ondoko datuak argitu behar ditu:

a) Zein diren dirulaguntza jasoko duten erakunde onuradunak (zerrendan bakoitzaren zenbatekoa zehaztuko da); dirulaguntza jaso ez dutenei dagokienez, batetik azalduko da zeintzuen eskaera ezetsi den eta bestetik zeintzuek ez duten jasoko dirua uko egin diotelako edo proiektua ezin burutu dutelako.

b) Lagundutako proiektuaren eta lagundu daitekeen aurrekontuaren izena.

3. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

4. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

13. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Titulu honetara aurkeztutako ekintzak hiru irizpide talderen arabera baloratuko dira:

1. taldea. Proiektuaren kalitate teknikoarekin loturiko irizpideak (20 puntu).

1.1 Proiektuaren aurkezpena eta koherentzia orokorra (12 puntu).

– Proiektuaren identifikazioaren, testuinguruaren eta justifikazioaren azalpen argia eta zehatza. (3 puntu).

– Proiektuaren justifikazioak, haren xedek eta horretarako planifikaturiko emaitzek elkarrekiko duten lotura. (3 puntu).

– Jarduera planifikatuek eta haiek gauzatzeko aurreikusitako giza baliabideek eta baliabide tekniko eta materialek duten lotura. (3 puntu).

– Proiektuaren onuradunei buruzko informazio zehatza eta haien ezaugarriak (sexuka bereizita). (3 puntu).

1.2. Aurrekontuaren azalpena (8 puntu).

– Partiden eta planifikatutako jardueren arteko berariazko lotura. (4 puntu).

– Aurrekontuko partidak proforma fakturekin babestea. (4 puntu).

2. taldea. Genero ikuspegia txertatzea (10 puntu).

2.1. Emakumeen eskubide eta/edo premiekin zuzenean loturiko xedeak ezartzen diren (2 puntu).

2.2 Emakumeen bizi baldintzak berariaz hobetzen dituzten eta haien premia praktikoei erantzuten dieten ekintzak sartzen diren (2 puntu).

Genero rolak aldatzera eta/edo emakumeek zerbitzuetarako sarbidea izango dutela bermatzera bideratutako jarduerak sartzen diren (1 puntu).

2.3 Jardueren kronograman eta deskribapenean emakumeek proiektuan parte hartuko dutela sustatzeko eta bermatzeko mekanismoak planteatzen diren: proiektuko etapetan emakumeek parte hartzea bultzatzeko prozedura eta metodologia egokiak planteatzen dira. (3 puntu).

2.4. Gizonezkoak berdintasunarekiko konpromisoarekin engaiatzera bultzatzen duten ekintzak jasotzen diren: emakumeen eskubideen gaineko kontzientiazio eta sentsibilizazio jarduerak, generoaren gaineko prestakuntza jarduerak, lan egitea maskulinitasun berrien inguruan... (2 puntu).

3. taldea. Beste irizpide batzuk (25 puntu).

3.1 Araban egotea eta bertan jardutea (8 puntu).

– Egiaztatzea egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikoan dagoela egiaztatzea. (4 puntu).

– Egiaztatzea Arabako egoitzaren antolakuntzan gutxienez 3 boluntariok lan egiten dutela. (4 puntu).

3.2. Erakundeak, zeinen estatutuetan ez baita jaso garapenerako lankidetzaren xede nagusi gisa, eta erakundeak, zeinek xede hori izan arren lehen aldiz egin baitituzte lankidetzarako jarduerak edo 2020. urtean bertan hasi baitituzte (5 puntu).

3.3. Proiektuak jaso ditzala Arabako gizarteari ekintza jakinarazi edo gizartea ekintzaz sentsibilizarazteko ekintzak, Arabako Lurralde Historikoko 3 udalerritan behintzat. (5 puntu).

3.4. Elkarte eskatzailearen zuzendaritza batzordearen ehuneko 50, gutxienez, emakumeak izatea. (2 puntu).

3.5 Proiektuan jasota egotea lankidetzaren arloan ezohikoak diren arabar agenteekiko lankidetzaren ekimenen garapena (2 puntu).

3.6 Urteko diru sarrerak 500.000,00 euro baino gutxiagokoak dituzten entitateek aurkeztutako proiektuak (3 puntu).

Proiektu batek dirulaguntza jaso ahal izateko puntuazio posible osoaren ehuneko 50 lortu behar du gutxienez.

Irizpide bakoitzean gehienez lor daitekeen puntuaziotik lortutako puntuak batu egingo dira eta dirulaguntza eman aurretik, aurkeztutako eta onartutako eskaerak alderatuko dira, horien arteko hurrenkera bat ezartze aldera. Hurrenkera hori puntuaren arabera izango da eta dirulaguntzak hurrenkera horren arabera esleituiko dira, puntu portzentaje gehien dituen eskaeratik hasi eta gutxien dituen eskaerara, aurrekontua bukatu arte.

Eskuragarri dagoen aurrekontua agortzen duten puntuazio portzentajearen azken tartean dauden eskaerei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak honela kalkulatu dira: gerakina hainbatuz, diruz lagundu daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzaren dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuaren arabera.

14. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehena, aurrerakin gisa, guztira dirulaguntzaren ehuneko 80a, esleipenari buruzko ebazpena ematen den egunetik hasita ordainduko da, eta, bigarrena, gainerako ehuneko 20a, behin bi hilabete igaro ondoren lehenbiziko ordainketatik, gauzatutako jarduerak azaltzen dituen txosten bat aurkeztu eta gero.

15. artikulua. Nola justifikatu dirulaguntza

Dirulaguntzen erakunde onuradunek proiektuaren justifikazioa aurkeztu ahal izango dute Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, Vitoria-Gasteiz), aldundiaren beste erregistro batzuetan, itundutako udalen erregistro orokorretan edo egoiza elektronikoan.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 6. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Justifikazioa egoitza elektronikoaren bidez aurkezten bada, justifikazio agiriekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren web orrian <https://web.araba.eus/es/ayudas-igualdad-cooperacion-e-interculturalidad> eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Horrez gain, adierazi behar da espedienteetara sartzen diren fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, jatorrizkoak erakunde eskatzailearen eskuetan daudela eta Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela hala eskatzen zaionean.

